

anaitasuna

ZEMENDIA (11) 1965 — XII URTEA — N.º 129 — Dep. Legal S. S. 1092-1959 — Zuzendaritza: Bilbon. — Arantzazuko Irarkolan.

Zeruan

KOMETA BIDAGOZ

Egun oneitan periodikuak-eta milla bider esan deuskue kometa orren barri: neurriak, 16.000.000 kilometroko buztana ebala; 1.500.000 kilometroko abiadea; eztakit beste zenbat xeetasun. Eta danok ikusi gura izan dogu: irriki miñez gau batean baiño geiagotan begiratu dogu zerura, an ete ebillen kometa ori. Baiña ez dogu ikusi: begira ta begira gau baketsuan, zeruko izarrak geldu munduari itaun luzeetan ikusi doguz, baiña kometarik ez...

Alan da be kometa ori ba dala bada-akigu. Bada beste batzuek ikusi dabe-ta. Eta ikaragarri apartekoa be eukala be badakigu, jakintsuek esan dabe-ta. Eguzkia jo bear ebala ta ez ebala, aren txinpartak mundutik gauerdia-aren bakean nabarituko. Eta abar eta abar...

Noiz edo noiz Eleizaren zeruaren sapaiean be kometa bat dabil: kometa argia, eta beren atzetik beren buztana, atzetik ondore eta frutu milla eroan ei dabéz. Geure egunetan kometa bi dabiltz zeruan: Eleizak bi daukoz, zein baiño zein andiago ta apaiñago, betikotasunezko ederrez jantzita. Ta kometa bi orreik Konzilio ta Aita Santua doguz. Kometa bi apainduri bikaiñenekaz jantzita.

Oraintsu joan jaku Aita Santua ONU-ra, geure Eleizako Kometa-Nagusia. Ta an emon ta zabaldu dau Kristoren barri. Kristoren izena aipatu dau, ta Kristoren dotriña esan. Eleizea mixiolari dala adierazi dau Aita Santuak ONU-ko jente andien aurrean.

Ta andik itzuli zanean, eta konzilio-ko salan sartu zanean, Lienart Kardenalak ongi etorri beroena emon eutsonean, berba oneik esan eutsazan Aita Santu Paulo VI-garrenari: "Beo-

rrek ONU-koei esandako guztia Konzilio-ko dokumentuen artean sartua daitetan gura dogu. Ta berba oneik txalo ikaragarriak entzun ebezen.

Baiña Aita Santuak beste au erantzun eutson: "Ni mixiolari joan natxatsue ONU-ko Batzarrera ta mundu osoaren aurrean Kristo-ren ordezkari agertu natxake, Aren dotriña erakutsiaz; joan, ba, zeuek be eta egin beste orrenbeste".

Ez dira aski txaloak, ez da aski majo berba egin dau esatea. Oneik atso zaarren parabolak dira. Ortik aurrera jo bear dogu: Majo mintzatu da, eta geuretzat mintzatu be. Guk bete daigun berba egin dau.

Ta saiatu, saiatu egin bear dogu. Guk egiten ez doguna, geure arerioek ez dabe egingo, geure alde beifnepein.

Bai, kometak zeruan dagoz; baiña kometak bidea erakusten deuskue, gu atzetik abiatu gaitez. Alperrik izango dira osterantzean milla kometa.

Kometa andi ori: zoaz zeure bidetik, uso mandataria lez, zeure bidea geuri erakutsiaz. Mintza zakioz munduari zeure berba mintzul argiekaz. Mintza ta esan: Nik esana bete eizue. Ni naz zeruan zuentzat liburu idekia. Ikas eta irakur. Gero, zoazie eta nigan irakurria, bete.

Kometa, kometa, ez zakioz munduari igesi mintzul. Zeure berbakaz mintza eiozu alkar maitasunaren leloa: "Bakea zuekaz".

DURANGO KULTURAREN ALDE

Urriaren 30-tik ille onen 1-gora Durango-n Euskal Liburu ta Diskoen Azoka edo Feria izan dogu, "Guerediaga" deritxoan lagunarteak antolatuta.

Azoka onetan ogetabost argitaraldiek parte artu dabe ta bertan agertu ziran liburu ta diskoek euskal gaidunak bakarrik izan dira. Amaika gauz eder agertu ziran egun orreitan Durango-n Andra Mari-ko elizpe zabalean.

Jai au ez da izan gure errietan antolatuten direan beste Euskal Jai bat. Euskal Jaia esaten danean folkloreko gauzetan geldituten gara beti: dantza, bertso, kantu... Beti azaleko gauzak. Azoka onek sakonago jokatu izan gura dau. Folklore gauzak ezetsi gura barik, euskal kultura adierazi, indartu ta zabaldu izan gura dau. Ta, jakiña, eztago iñon benetako kultura bat gorde ta zabalduerik, liburuen bitartez izan ezik. Gure euskal kultura aunditu ta zabaldu gura badogu, ez daigun uste antxiñako erriak kontuxu liburu barik lortu ebela arelako kultura bat. Tamalgarria benetan gure euskal kulturak bide orretatik jarduten ba dau.

Benetan be, Durango-n adierazi diran milla ta berreun liburuak beste zeozer diñoskue.

Azoka eder onen antzera, beste batzuek antolatu bear litza-kez, euskal kultura beartsuaren onerake.



Barriro argiratu da ARANTZAZUKO AMAREN EGUTEGIA pasadan urteko utsunearen ondorean. Bizkaitar: Egutegia urte guztirako lorategi gozoa dozu. Bertan idoro daikezu eguneroko loratxo. Loratxu au mota askotakoa izango dozu: izkirimiri, barre ta jakingarri t. a. Eguneroko zure neke ta naigabeak gozatu gura badozuz, loratxo oneik irakurtea baiño eztaukazu. Arantzazuko praille gazteak egindako lore gozoak dozuz.

POLIPASO DIRU GARAILLE

Aizkora apostuak zaletasun aundia euki dabe beti euskaldunen artean. plazetako betekadetan ikusten izan denez.

Ille ontako lenengo egunerako Polipaso ta Errekalde-k gertuta euki ehen apostuak zer-esan aundia alara dau gure errietan. Ainbeste berba entzun ziran entzun be: Errekalde-k irabaziko ebalu, baiña beste aldekoak be itzaropenagaz entrenatzen ebillela... au ta bstea.

Izan be diru pilloa ez zan izan makala: berreun milla peseta alde bakoi-tatik. Onetariko diru pilloa ikusita sarritxo uste baiño digu geiago jokatuten ez ete dan itaunduko neuke nik. Eta, ganera, apostuak ez ete diru izalen beti euskal apostulariaren griñarik okerrenetarikoa?

Jentea be iñoiz ikusi ez zan alakoa egongo zala ebillen esaten. Orre-gaitik, Atotxa baloi kanpoa aukeratu eben aposturako. Dana dala ezla egon-leku aundi baten beartasunik, Errekalde- gaixotu bai zan.

Egia esan, Errekalderen jokereak zer esan naiko alara dau aizkora zaleen artean. Baiña zoritxarrez gaixotasunen aurrean besterik ezin dai-kela esan bear. Ezin daikegu pentsatu Azkoitia-ko INDARTSUA uskeri bategaitik bildurtuko zala. Izan be herrogei milla ogerlekoko uskeriak ez tira izaten egunerokoak. Bromako arlo ezjala izan Errekalderen, Polipa-soren eta "Federación Atlética de Guipúzcoa"-ko medikuek egunerokoetan adierazi eben. Antza gripe bat arrapatu eban gure Errekalde-k. Izan be gaixotasunak beti etorten dira baimenik iñori eskatu barik.

Penagarria benetan Errekalde-ri gertatu jaken gaixotasun ori, bai be-relzat diru pillo eder bat galdu ebalako, ta baita aizkora zaleentzat be irurogei ta bi urte oneitan ikusi ez zan apostua ezerezean gelditu dalako.

Penagarria da benetan diru galtze ori, baiña kontuan euki bear da beti diruaren aurretik deportisteen osasuna ta entzule ona dagozala. Alde ba-tetik Errekalden joera poztutekoa be bada, au zintzo jokatu bai dau.

Oneteriko adibidearen bearrean ba dagoz seguru gaurko deporteak, askotan irabazteko bide errez ta polit bat baiño ez tira izaten da.

Beti deporteak

Euskaldunok gorputzez liraiñak eta ermoak oi gara. Baiña, alan be, gaurko bizikereak deporteak eskatzen deusku. Mende ontako lanak ez ditu iñoiz moduan besoak-eta nekatuten, baiña burua bai: errezago zorutzen da. Beraz, burua bear dan lez eukitzeko, eta, ebar bada, gorputz guztia be bai, deporteak ona dala esaten dabe sendagille guztiak; ez periodikuetako depor-tea, geure gorputzez egiten doguna baiño; benetako deporteak.

Zelan gabiltz?

Gure errietan deportelaria ugari izan da, eta ain txarrak be ez; beren saillean goen-aldeetara irixitako batzuek be ba dira: danok ezagutzen doguz Bilbao'ko Atleti'ren garai batzuk; Loroño; Paulino Uzkudun; gure egunetan, oraintxe gitxi dala ikusi dogu Ondarrabi Espaiñi'ko arraunlarien artean txapeldun dana menderatzen. Gazte-jentea be ba dogu ugari zenbait sail-letan: futbol eta bizikletan, esate baterako. Pelota ta aizko-rean gu lakorik ez dago. Azkenengo ori, gaiñera, urte bete ontan asko altxa da: Polipaso, Errekalde, Astibia ta Berekoetxea'ren izenak Espaiñi guztiak atzo ikasi ditu. Eta jenteari atsegin jakola ematen dau mutil oien lana: Astibia'k Madrillen atera ebezan ezpalak segiduan jarri oi ziran Espaiñi'ko uri na-gusiko bar guztietan. Iñundik be jentea arrituta egoan.

Propaganda egiteagatik etxeen batek milloia agindu oi eutson. Errekalde ta Polipaso'ren makillatxoak ikusita ez da-kigu zer esan izango daben.

Azpiko deporteak.

Leen esan gura genduan lez, beste deporte-klase bat be ba dala emoten dau. Bai, benetan zerbait esan gura neban.

Asko ez dira asetzen berak egiten daben deportearegaz: beste batzuen deporteak be ikusi nai dabe. Ondo dago: ikusiaz ikasten da. Goazen aurrerago. Askok ez dabe ainbesteko de-porterik egiten; besteena ikusi edo irakurtzearegaz naikoa dabe. Oneik beren zeregiña betetzen dabe deportearn bizitzan: nor-baitez ordaindu bear ditu deportetik bizi diranak jaten dabezan okelak. Baiña goazen aurrerago: deporte-klase onek zer egiten dau irakurleagan? Gure gizaldian dextente.

Gaur ibiltzeko aurrerapenak oso azkarrak dira: areoplanoa, koeteak... Eta erri batzuetako pentsakereak be arin etortzen dira besteetara, ta asko gaiñera. Olan, ez daukogu astirik pen-tsakera bakoitza bere lekuan jartzeko; ontarako aurretik ondo konprenidu bear baida. Konpreniduteko, barriz, ez daukogu gogorik: ori gauza zaarrekaz asti geiegi galtzea litzake... Bide ontatik, beti barri-gose, gizona erreztasunaren atzetik dabil.

Konpreniduten errezena deporteak da. Baiña gauza zaillak dira balio dabenak. Deporteak gure buru-austeak, problemak aaztuaraziko deuskuz, baiña garbitu ez. Problema izatea ez da txarra. Zuzendu, garbitu barik uztea da txarra. Garbiketa ori egiten oitu biar dogu. Deporteak ondo dagoz burua neka-tuta daukogunean, astitxo batean.

Joxe Mari Arzallus.

SUJESTIBUA BE EZ DAN ZEOZER

Konformismua, ajolagabekeria, esku tar-tean bear gendukezan arazoeri "or kon-pon" esan, ta bizilza eroso bat eroan gura izatea; orra, gaurko munduan zahaldu jakun gaixo ezagun bat. Ta au, gauza ta gai guztietan.

Elzeziñoak datozenean autarkielara (bo-toak emolera) doazenak, bear eikezanan

erdiak baiño ez dira izaten. Erdiak? Sarri ezta orixe be. Suizan, kantoi batzuetan, euneko ogei izan ziran bakarrik.

Erlejiorekiko indiferentismua, ondo zabalta ta ezaguna dogu. Ainbesteri bardin deutse katolikuen elizara, zein protestanteenetara, zein ez batera ta ez bestera ez joan. Ta ez da geienetan ezelako go-

rrotoagaitik. Ez deutse ardure, ta kitto.

Gaur ia ez dago, edo ez da luzerorako, politika edo mogimentu bateri indar emoteko ategiñetan dabillen aldizkaria. Depor-te, gertakizun, edezti zar ta alakoakaz be-te bearko dauz bere orrietatik geienak, gaixotu ta il ez daian.

Au guztia, Europa osoan somatzen dan gaixo bat dogu.

ZURI BAT BALTZITXU

Frank Riley "Los Angeles Magazine" aldizkariaren idazle bat da. Baltzen itxillua asi zanean, gauzak zelan gertatuten ziran ondo jakiteko baltz itxura artu eban, arpegi ta kanpotik ikusi eitekean azal guztia pintatuz, ule-ordekoa ta anteaju illunak ipiñiaz.

Itxi deiogun periodista berari, gauzak diran lez esaten:

"Lelengo zuria lez, ondiño aldatu barik, sartu nintzan baltzen artean. Eta orduan somatu neban zuriak baltzen artean sentitu daiken bakartasuna. Nok jakin zer gertatu eitekean baltz aiek nigaz asarretuko ba-lira.

"Barriro be zurien aldera etorri nintzan, baiña oraingoan baltzez aldatuta. Danak, mamarru bildurgarri bat lez begiratuten ninduen. Aurrena zorakeri batzuk egin nebazan. Armatoki batean bala batzuk eskatutera sartu nintzan. An egozan zuri danak begirakada okerrez begiratuten ninduen. Saltzalleak be, bildurraren bildurrez ezin eban berba egiten asmatu. Azkenean, balarik ez eukala esan eustan berba motelen artean. Kanpoko aldera biurtu nintzanean ez egoan iñor be etxe artan. Danak iges egin eben neri bildurrez.

Kanpora urten nintzanean, kontuz ibilli bear izan nintzan, polizien begietan susmo txarra ikusten neban-da.

Baltzen artean sartu nintzanean neure azal baltzaren kolorez ikusten nebazan gauzak. Oso pobre ta txarto bizi ziran baltzak, zurien aberastasun eta zorionari bagagokoz. Mutil gaizkille ta lizunkeriari emondako neskak larregi ziran baltzen artean, zurien mutiko ta neskatillak eskoletara dozzela kontuan artu ezkerro, poliziak eurak be gogorregi jokaututen dabe baltzakaz.

Orduan ondo ulertuten neban baltzen biurritasuna. Guzur galanta da, "Los Angeles"-en ikusi zan mogimendua "gangster" edo gaizkille baltz batzuen itxillua zala esatea. Erreboluziño bat izan zala esango neuke nik. Justizia billatuteko egiten daben erreboluziñoa, ta zurientzako dauken bildurra, gorrotoa, ikusi-eziña agertuten dauan erreboluziñoa.

Neuk entzun nebazan berba tamalgarri oneik.

"Denda au erre egin bear dogu, bere jabea lapur txarri bat dok-eta". Eta baita be: "Gizon maltzur oiek guri dirua ostutera etorri eta gero bere Kadillak-etan joaten dituk txerri orreik".

"Izan be denda askotan karuegi salduten ebazan gauzak, sarritan dendariak eundik berrogei irabaziaz.

Berrogeta amar milloi dolaren balioa galduarazi, ostu ta erre egin deutse baltzak zurieri erreboluziño ortan. Baiña eurak ez auken lapurretan asi danaren kontzientzirik. Ara zelan berba egiten eben.

—Denda orretan 250 dolar emon nabazan 180 baiño balio ez eban otz-egille bategaitik... Erre eizu, mutiko, erre!

—Beste iñun saldu ezin dabezan gauzak salduten dabez denda orretan. Uruna mamarruz betea emoten dabe. Amak esan deust niri... Erre eizu seme, erre!

"Odola" edo "Odolez anai" ipinten eben etxeak ez ebezan erre ez arrikatu, anai baltzen etxeak ziran-da. Makiña bat denda ta eskaparate erre ta birrindu ebezan egun artan.

"Gertaera guzti orreik zeozer esan gura dabe. Egitan esan neike komunisten aztarnik ez nebala arkitu baltzen matxinada artan. Dudarik barik, komunistan batzuk be izango ziran, baiño batez be baltzak eratu daben matxinada izan da oraingo au.

Andrazko baltz batek auxe esan eustan: —Berriz olakorik gertatuten bada, bildur naz, erreboluziña baten asiera izango ez etedan.

"Izan be baltzak matxinada onetan, zuriak lekuri xamurrenean zauritu ebela ikusi dabe. Ta barriro be berau egiteko prest dagoz.

"Itxillua bakarrik deituten badeutsagu matxinada bateri, begiak eta biotza, baltzak gura ta eskatuten dabenari itxitzen badeutzaguz, baleiteke urrengo baten gauz okerragoren bategaitik negar egin bear izatea.

"Erabaki on bat emon deiogun baltzak eskatuten dabenari, gure artean pakea sendotu gura badogu".

Erroak

Munduak, mundu danetik, ba-daukaz bere urtetxuak be. Gizaldietan zear, amaika-txo entzun dau. Itxaropen mamitsuak sortu jakoz. Muga orreik iritxi asmoz egiñalak egin ditu, ta zoriona betirako besarkatu bearrean egoan bakoitzean, itxaropen ilurria agortu egin jako, ta zorionaren altxorra esku tartean birrindu.

Gaur munduak, ez dautso iñori sinistuten.

Euskal errian

Españian ez dala oraindiñoarren Europako lurrun bero au sarlu, esaten da. Nik, European daukon besteko goritasunagaz ez dala sartu esango neuke; baiña, epeltxuago bada be, geure artean dabil bai, lurrun orren arnasa epela.

Ba-dakit, komunisten batek esanda daukola, gure Euskalerrian ezin dabiela ezer askorin egin. Ezin dabe, komunismu arazoetan samara arte murgilduko dan gazte giartsurik aurkitu.

Katolikuak? Ba-dira, bai, Jaungoikoari eskerrak, Kristoren egiari buru-belarri eskeñita dagozan gazte kementsu, giarritsu batzuk. Sozial ta politika arloak Kristoren ta Eleizaren arauetara konpondu gura dabezan gizon jatorrak. Kalean ta edonon kristau-giroa sartuteko ateginduten diranak. Baiña zenbat?

Zenbat ete dira Euskalerrian ideotojiren bateri osorik eskeñita dagozan gizasemeak! Euneko bi? Euneko iru? Ze ikuskizun penagarria...

* * *

Nonoiz, Jaungoiko gure Jaunak ez dogu-la ezer be egin, esan bearko deusku. Ta Ebanjelio santuan ezer be egiñ ez eban arexeri eskeñi eutsen beste emongo deusku guri be.

Ara zelakuak diñoskuzan Ebanjelioan: "Atde nigandik madarikatuok, betiko sutara. Ba, gosetu nintzan ta ez zeunsten jatenik emon; arrotz izan, eta ez ninduzuen etzera artu; billotsik eta ez ninduzuen jantzi; ondoezik, eta kartzelan, eta ez ninduzuten bisitatu".

Oneik danak ez eben ezertxo be egin. Ta orrexegaitik —ezer be egin ez ebelako— joango dira betiko sutara.

Erlegiño-askatasuna

Konzilioan

Joan Mari
Torrealday

Gai interesgarria da Erlegiño-askatasun au, dudarik ez. Ain zuzen, berari buruz artikulu asko azurmamitu dira, alde ta kontra. Ta mundu osoan eragipen andia egitera deitua dagola esateari ez deritxat guzurra. Emendik urte batzuetara ikusiko dogu, ostantzean. Kondaira lekuko.

Askok bildur itzela deutse erlegiño-askatasunari. Bueno, jeneralean, edozein libertade be ez dabe begi onez ikusten. Orre-gaitik askatasun berbea entzuterakoan, susmo txarra artuten dabe askotan, ta "kontuz"! bildurta ta anker bat bota pentseu baiño len.

Ba, arrabia baiño pena ematen deuste geiago niri olakoak. Zer dala-ta ikusi bear dabez, ba, beti libertadearen arriskuak, alde txarrak? Oneentzat, bardin da libertadea ta libertinajea, batubestearen parean jartzen dabezen ezkeru pratikan. Kargutu barik bearbada. Mania bat da ia, kontixu, eurena. Zergatik, ba, berdetu euren kentza alperrik bada?

Formaziño ta Konzientziko arloa

Gaurarte —ta gaur be oraindiño— bizitza, kristiñau bizitza, dana eginda, errez egitearren, emoten eutsen abadeak kristiñaueri. Guzurra ete da moral lana eiotuta lez emoten eutsela sarriegi, (beti ez esatearren?) "Au ta au egin bear dozu kristiñau ona izateko; beste ori ezin daikezu egin. Ainbeste seme euki bear dozuz". Jo ta ke. Beti mugak, frontierak.

Ori egiteko ez dago deretxorik, gizon bakoitxak bere konzientziaren aurrean egin bear dau neurtze ori-ta. Abadeak egin bear dauana zera da, orreen konzientzi ori ondo ta zuzen formatu Ebanjelio giroan. Ta eurek, kristiñauak, ikusi daiela gero beren bizitzan zer ta zelan egin. Ori da gizona bear dan moduan errespetatzea.

Formaziño orreri erruak, gero kristiñauen eskuetan egin-kizunen bat euren ardurapean izten jakenean, orduan kontuak,

Esperientziari jaramon egiñik 70 gotzainen partetik Joan Heenan gongotzaiak esan eban Konzilioan, len:

"Erlegiño askatasunak dakarzan bentajak, alde onak, okerraren propagandak ekar eikezan arriskuak ontzat euki leikezala egiten dabe. Gizonaren esperentziak erakusten deusku, erlegiño terrenoan Estaduaren esku-sartzea beti amaituten dala negargarri".

Ez noa ni emen askatasuna sedazkoa ta arriskubakoa danik esatera. Esan gura dodana, —ta diñotana— da, beste edozein tasunak lez daukozala askatasunak be arpegi bi, ez geiago ta ez gitxiago. Ago biko ezpata dala, ta onerako ala txarrerako erabilli leikena. Besterik barik.

Baiña dana dala, jente oneen bildurra ta sumo txarra nundik datorren ulertutea erreza da. Formaziño kontua da ezer baiño geiago ta printzipalki, nik uste.

Ikusi daigun apur bat:



begi-belarri geratuten ziran orduan, arrittuta, ez jekielako zer egin beragaz. Instrumentu ez-ezagun ta barri bat, —ustebarikoa—, eskuetan iminten deusueanean letxe. Ez dakizu nundik oratu be. Ta zeozer ikusterakoan, —badaezpadan be!—, arriskurik ba ete daukon jatortzu lenen burura. Ba, kristiñau oneeri, beste orrenbeste. Askatasunari billura.

Ori bateko.

Azkatasunari bildur

Eta besteko, edozein libertadeari ikara ori badeutsoe, zer esanik ez Erlegiño-libertadeari deusenez. Neurritz gaindikoa da ori!

Erlegiño katolikoa da benetako bakarra, ta beste danak okerrak ta guzurti petral batzuk baiño ez dira! Kanpora orduan katolikoa ez-baiño beste guztiak, guzurak ez dauko eskubiderik-eta!!!

Aulan pentsetan dabe oneek. Pentsetan eta esaten.

Garbi: Egiari bagagokoz ondo pentseta dago. Ez oster, gizonari beatuten badeutsagu.

Konzilioan be berba egin da Erlegiño-askatasuna dala ta ez dala. Ba dakizue ondotoxo be onezkeru. Eztatbaida itzelak izan dira an be. Konzilioak, egin esan, ez dau barbarik egin oraindiño. Baiño Konzilioan, bai, berba egi nda.

Ikus daigun orain, begiratu arin batekin baiño ez bada be, zelan planteatuten dan gaur problema ori. Dakien artean, esan gura dot.

Aurrera jarraitu bear orduko esan bear dana da, Erlegiño-askatasunak ez dauala esan gura libre gareanik Jainkoa maite izateko eta gurtzeko, ala ez. Jainkoagan siñisteko ala ez egiteko ez gara libre. Kontuan euki ba oartxo au artikulo guztirako, ta betirako.



Eztauke arrazoirik.

Joan XXIII arte "tolerantzia" berbea usetan zan asko katoliko etziranantzako. Alan pentsetan eben —ta dabe— orduko katolikoak, katoliko etziraneri buruz: "Oneek gizajoak okerpean dagoz koitxaduok... Eztauke bape arrazoirik. Baiña, tire, lastimie emoten deuste ta sufrittu egingo dotaz, ba..."

Paternalismoa be etxako falta berbakera oneri. Ta, gaiñera, katolikoetariko onenak ziran gero olan pentzetan ebenak... ze, "besteak" (eskoï aldekoak-edo), orreek persegidu be egiten ebezen-ta, kurtzea esku batean ta bestean ezpata ebelarik... (ezpata ala kurtzea ete eroien eskoian?)

Ta zergatik olan?

Orreek egiaren eskubideetan, deretxoe-tan, ta okerraren eskubiderik-ezean imin-ten ebezelako euren begiak.

Ta egia da. Guzurrak ta okerrak ez dauke eskubiderik. Egia bai, ta berak bakarrik, gaiñera.

Geiago oraindiño: Erlegiño katolikoa da bakarrik egiazkoa, egia bakarra. Ondo dago. Aipaturiko katoliko orreek arrazoa orduan, e?

Ez, ez diñot nik olakorik, Jainkoarren. (Baietza damotsenak ba dira).

Bein Joan XXIII azketiño esan dogun moduan ez-baiño beste era batera imin-ten da problemaren planteamentua.

Pertsonak beti errespetatu bear

Pertsonak, edozein gizonak, besterendu ta kendu ezifiezko eskubide batzuen jabe

da. Orretariko bat, ain zuzen, zera da: Erlegiño-askatasuna. Ta orretara, okerrak eskubiderik ez daukolarik iñoiz, o-tera, **okerduna**, guzurrean dagoana, ori beti da deretxoen jabe berez.

Bestalde, gizona ezin leiteke indarrez iñoiz be beartu. Gizonaren barrua (pe-kataria ala zuzena, bardin) errespetatu egin bear da, Jainkoak berak errespetatu egiten dauan lez. Ain ze, gizon guz-tiak salbatu daitezala Jainkoak gogotik gura arren, gizonak, berak nai badau, in-fernuko sutara bota leike bere burua.

Giza-pertsonaren diñatadunari jaramon egitea da, gaiñera, olan obratzea. Bere antzeko egitean, Jainkoak gizonaren gi-zatasunean ezarri ebelako askatasun ori, diño Kushing kardenalak.

Orduan ze inportantzi dauko, ba, erle-giño katolikoak? Ez ete deutso bardin katoliko, edo profestante izan, edo budis-ta?

Ez, ez deutso bardin. Egiazko erlegi-ñoa, katolikoa da, ori bai. Ta danak dau-ke egia billateko obligaziñoa. Pontu on-tan Kontzilioak garbi imiñi dau obliga-ziño orren "**obligaziñoa**". Ta egia billatze ortan ekin bear dabe, goiz ta berandu. Baiña bakoitxa alleatu bear da egia ori ikustera. Bitartean, gu ez gara iñor egia ori onartutera obligatzeko.

Egia ta okerra ez dira buztartzen

Bestetik, Kontzilioan garbi agertu da —Jaeger kardenalak esan eban atan be— erlegiño-askatasun au emotean, ez dirala, orraitino, egia ta okerra buztartzen, ez parean jartzen. Gizarte-libertadea da or eskatzen dana. Orretara, okerrean dagon

bategaz ondo konpontzen nazanean ta na-zalako, onek ez dau esan gura orren oke-rrak ta utsak nik onartuten dodazanik. Baiña egian ez dagoala-ta, pertsonaren eskubide danak ukatu orregaitxik orreri?

Ez dago ortarako arrazoirik or.

Ez gara indiferentismora biurtuten, ba, ori defenditutean.

Giza-pertsonaren eskubideen alde ga-goz bakarrik.

"Askatasunerako eskubide au bearrez-koa da, derrigorra, ez gara bein da ba-rriz esaten aspertuko", iñoan Kontzilioan Spellman kardenalak ikusmira oneri lo-turik.

Ta Kushing kardenalarena da beste esa-kizun au:

"Kargutu gaitezen erlegiño askatasuna negetan dan lekuan, ia beti ukatuten di-rala beste libertade guztiak be an. Eta Eleizak giza-eskubide guztiak defenditze-ko bestebearra dauka".

Arrazoa onena, ze, libertade bat uka-tzetik berez dator beste libertadeak uka-tzea be, gizonaren aunditasuna —Jain-koak emondakoa— ez dalako onartuten.

Garbi ikusten dogu kondairari baga-gokoz.

Estaduak ezin beartu gaikez

Orain, beste problema bateri be lotu gaikeoz, gai au aittatu dogun ezkeri:

"Estaduak beartu ete gaikez erlegiño bat onartutera?"

Ikusi daigun "**Mit brenneuder Sorge**" enziklika ez-ezagunak —apropos— zer beiztzen dauan:

"**Fededunak bere fedeari berari jago-kozan moldekin bizi ta beteteko kendu-eziñezko eskubidearen jabe da. Fede orren obligaziño ta betetea kendu edo enbara-zua iminten deutsuen legeak, lege natura-laren kontra doaz**".

Ez. Estaduari ez jagoko profesioño erle-gioso bat egiazkoa dan ala ez dan epai-tzea. Ortan ez da maixu ta orregaitik ez dauka ortarako eskubiderik gizarteko al-kar-bizitzarako oiñarri sakonen kontra joan ez daitekean arteño. Ez dau Esta-duaren terrenoa-ta...

Orregaitik, Estaduak ezin leike erle-giño oker bat, besterik barik, gizarteko kaltetzat artu, galeratzat jo, bere iritzia-ren arabera, ta gero oker ori persegidu. Ostera baiño, Estaduari tokatzen jako pertsonaren eskubideak ta komunidadea-renak "**konziliatzea**".

Estaduari ez jagoko bere menpekoek Estaduaren beraren iritzira Jainkoa gur-tutera beartutea obligaziño.

Estaduari bere menpekoek Jainkoa gur-tu aal daitela, ondoen, jagoko.

SOLLUBE ALDETIK

Mendietako piñudiak geitu diran bitartean, Sollube aldean ezezagunak ziran basa-piztak agertzen asi dira. 1962-garren-go maiatzen lenengoko azeria ikusi zan. Arrezkero, pizti oneik geitu ziran lez, eta baserritar-erri aparteko jan-aldiak egiten eutseezan lez, Amorebieta, Bermeo, Durango, Elorrio, Gernika, Lekeitio, ta Mungia-ko "Sociedades de Caza"-koek ilketak antolatu ebezan, batez be jateko benenoakaz. Alan da be, oraindik basa-pizti onek ez dira ayendu, ollo, koneju, t.a. gitxiluten bai doaz. Meñakabarrena-ko baserritarrek esango leikigie ia ayendu diran ala ez. Ain zuzen, auzo oneko ollotegietan pizti oneik jan-aldi bikaiñak egin ei dabez.

Baiña azeriak bakarrik ez dira izan; basakatu, basurde, lepozuri ta onelakoak be ikusten izan dira lantzien bein. Batez be, garrantzikoak izan ei dira basurdiak arto soloetan egin dabezastakeriak. Ez eban iñork pentsako orrelako piztiak Sollube inguruko errietan: Arrieta, Fruniz, Meñaka... ibilliko leitekezanik. Baiña soloetako jan-aldi ta trastakeriak erakutsi eragin dabe; euren pausoak Meñaka-ko Arkegarreta-n billatu ziran lenengoz. Lomerike aldean ikusitako basurdi batek irurogei kilotik gora eukazala ibilli dira esaten. Eta ezdot uste guzurre izan daikanik.

Basapizli oneen trastakeriak ikusita inguruetako kazadore ta baserritarrek beste il-aldi bat emoteko batu dira. Errietako aiumentuak be biar ontan sartuta dagoz pizti bakoitzagaitik bi milla errieleko saria jarriaz.

DURANGO-TIK

"Amigos de la Merindad de Durango" osatuten daben lagunkideko-ak jo ta ke dabilz garrantziko zeozer egin naitan, kultura, sozial, edertide ta onetariko gauzen alde. Ta gazte oneen asmoak ez

dira gelditzen Durango-ko errian bakarrik; "Merindad" ori osatuten daben erriak be euren asmoetan bai dagoz.

Euki dabezastakeretan, jaso ebezan lenengoko pausoak, Durango-n bertan eta gerotxuago Elorrio-n pintura agerpen bat antolatuaz. Agerpen orren asieran Diputaziño-ko ordezkari dan Markes Arri-luce de Ybarra eta Durango eta Garay-ko alkateak be egon ziran.

Baten batek "Amigos de la Merindad de Durango"-ko oneik ze elburu dauken itaun leikit. Euren "Boletin"-eko lenengo zenbakian agertzen dan lez, alkar-laguntasuna da, alegia. Batek bakarrik edozelan be ezin lortu leikena, danon artean, danen indarra bat egiñaz, errezago lortuteko jaio zan lagunkide au. Izan be, gaurko gizartean amaika beartasan dagoz bakoitzak lortu ezin daikezanak, batez be industriagaitik aunditzen doazen errietan. Eta Durango dogu onetariko erri bat, ziur. Benetan be, industriak ukatu ezin daikeguzan aurre-rapen asko dakar; baiña akatsak be ez uste ez dauzala ekarten. Durango ta inguruan dauzan errietako beartasan eta akats oneik erabakia lortuteko deitua da lagunkide au.

Gaur bertan, lerro oneik idazten dotazen bitartean, ikusi daikegu egin daben beste ekiñaldi bat: Santa Maria-ko eleizpean antolatu daben eskal liburu ta diskoen azoka edo feria. Bai dala pozgarria ain ederto gertu ta egiztatutako programa bat ikustea.

Biotza pozez beterik jarri jat ainbeste liburu ta disku eder ikusi dotazenean, neuretzako geienak ezagunak ziran da.

"Kirikiño" —Bustinza— idazlari ospetsuari eunurte-beterako ta Zubiaurre pinto-re anaieri omenaldi apartekoak be gertuten dabizela badakit. Oneik ta onetariko beste asmo asko jakin ondorean "Amigos de la Merindad de Durango"-ko lagunkidea osatuten daben gazteak goralduta al dan lekuetan beste orrenbeste egitea baiño ezta-

go. Ta benetan, bai egin bear geunkela!

GERNIKE-TIK.

Urriaren lenengoko egunean eun urte bete dira Aita Remijio Villariño jaio zala. Lenengo urte biak bertan igaro ebazan; irugarrena, Miranda-n gurasoak bertan bizitzeko joan ziran da. Lau urte eukazala Bilbo-ra etorri zan eta bertan igaro ebazan bere bizitzako unerik garrantzikoena. Mutil koskor zala, Bilbo-ko Institutoan urte bi ikasi ondoren, Valladolid-ko seminarioan egin eban beste ikasaldi bat. Amabost urtegez Jesus-en konpañian sartu zan. Berrogetamar urte geroago, urrezko ezteguak ospatu ebazanean, Bilbotarrak Bilbo bertako gizon ospetsu bateri jagoken omenaldi zintzo ta bero bat egin eutsoen. Osterantzeko urteak, erioztzak arrapatu eban arte, Bilbon bertan egin ebazan. Jainkoak 1939-garren-go aprillaren 16-an, 74 urte eukazala, eroan euskun. Bizkai-ko Diputaziñoak 1940-garren-go urtean oroigarri bat jarri eutson jaio zaneke etxe aurrean.

Ez litzake izango erreza Aita Villariño-k egin eban dana lerro oneitan jarri gura bagenduke. Gure errietan dabilzan aldizkari asko berak sortuak dirala baiño besterik ez dogu esango: "De broma y de veras", "Sal terrae", "Hosanna", "El Mensajero del Corazón de Jesús"... t. a.

Onetariko asko bear gendukez errietako kristiñaulasun aiñ epela biztuteko.

AUÑAMENDI: IZTEGI BARRIA.

Oraintsu urten dau Zarauz-ko Icharopena irarkolan iztegi barri bat: Auñamendi, Español-Vasco deritxona. Orain-gokoa, lenengo tomo edo atal bat baiño ez da izan eta A izkitik APAR izkifariño lana da. Ara or iru iztegi barri zelan urtetan dira ia-ia era batera. Besteak Isaak Lopez-Mendizabal eta Aita Mujika-

renak dira. Izan be egon gara iztegi on baten bearrean. Auñamendi iztegi onek aparteko interesa dakar, Azkue, Pierre Lhande, Tournier Lafite ta beste asko iztegien laguntasunagaz gertuta dagoanez.

EUSKALTZAINDIK.

Euskaltzain laguntzalle berriak izentatu dira. Onexek dozuz: Aita Joxe Azurmendi (Arantzazuko praillea), Iñaki Barriola, Jean Curutchet, Jean Lois Davant, Aita Emeliano karmeldarra, Jacques Etcheverry, Salvador Garmendia, Anjel Goenaga, S. J., Iñaki Goikoetxea, S. J., ("Gaztelu"), Mikel Lasa, Juan Goikoetxea (Arbizu-ko abadea), Aita Luis M.ª Mujika, Xavier Gereño, Juan Garmendia ("Zeleta"), Karmelo Etxenagusia (Derio-ko irakastea), Jesus Elozegi, Pierre Duhour, Aita Felix Bilbao (Arantzazuko praillea), Jean Baputiste Dirassar, Antonio Bilbao, Iñaki Beobide, Juan J. Beloki, J. Antonio Arko-txa, Francisco Altuna, S. J., Toribio Etxebarria, Rudolf de Rijk, Jesus Maria Oleaga, Gabriel Zapiain, Manuel Viarsolo, Joxe Olaizola, Josu Oregig.

ARTXANDA-TIK.


Artxanda-ko funikularra egin zanetik berrogetamar urte igaro dira. Donostiko Evaristo San Martín y Larras jaunak 1913-garren-go agostuko 16-an Bilbo-ko aiuntamentuari karta bat idazti eutson Artxanda-ko puntan olgeta-leku bat egiteko eta bilbotarri bertaraiño eroateko funikularren baimena eskatuaz. Lenengo biarrak laster asi arren, ez ziran izan antza ain errezak, ainbeste denpora igaro zan bukatu baiño len da. Dana dala, 1915-garren-go urriaren 17-an egin ebazan Artxanda-ko funikularrek lenengoko joan-etorriak. Orditik onantza, amaika bider egiten dator biar bardifia!

"Lorrin" lamiñea ta mutilla

Antxiña, "Eperlabarreta" eritxon baxteixe ederrean, emakume bat seme bat gaz bizi zan. Semea, mutil morrosko-errimean zan; laietan, bedar-ebaten eta enparau lanak bizkor eta ondo egiten bera lakorik inguruetan ez zan. Eta indarketa guztietan be txapeldun izaten zan ezkerro, erriko ta erbestekoak "Indartsu" izenaz ezagutzen eben. Eta guztiak, ago batez, alako mutil adoreturik egundo ez ebela ezagutu esaten eben.

Illuntze baten, semeak amari esan eutsan:

—Ama, biar goizean Saibi-mendira iratan joan bear dot. Eguraldiak antz ona dakar; eta, uste dodanez, mendi aretan irea aspaldiko arorik onenean aurkituko dot. Eta gaiñera, Urkioleta'ko neska-mutillak be, biar goizean ei'doaz mendi orre-



tara, ira-ebaten; eta neuk be, ira-ebate ta ekarteak eurakaz batera egin gura dodaz: niretzat beti adiskide onak izan dira-ta.

—Asmo ori —erantzun eutsan amak— urrengo asterako atzeratu obe dozu: entzun dodanez, "Lorrin" lamiñea, ainbeste gurasori eragin dautsen lamiña ankerra, Sailluente'ko artzulo-aurreko landatxoan urrezko aulki baten jesarrita egoten da egunotan-eta. Aren gurari ta asmo guztiak, barriz, beti lez, nundik gazteak atzipetu ei'dira. Orregaitik, ba, ene seme, ez zaitetz biar basorantz abiatu: bestela, galdua zara...

Mutillak, amaren berbok entzutean, barre-algara aundi bat jaurti eban; eta irribarrez esan eutsan:

—Galdua neu? "Lorrin" lamiñearen bildurrez nazala uste dozu, ala? Nun litzakit "Indartsu" izena? Oraindiño olakorik!

—Ene seme: indartsua ta adoretua zaranarren, ez dakizu oraindiño munduko barri. Mundu onetan maltzurrik asko dago; eta or-emenka sareak ugari zabalduaz, gaurko gazteak atzipetzen era bitara diardue: indar-bidez eta atsegin-bidez. Indarbidezko soka latzaz ezin arrapau diran gizon sendoak, leunkerizko ari me ta bigunez, sarritan beingoan lotzen dabez. Begira, ba, ene maite!, askoren maltzurkeriak luzez azken-bageak dira-ta...

—Esan, esan nai dagizun guztia! Lamiña dala-ta, nire asmoetan atzera-mardorik ez dot egingo-ta. Ni bildurtzekorik oraindiño ez da jaiio, ezta jaioko be. Biar goizean, lamiña ta sorgin guztien ganetik, mendira joango naz, ta kitu.

Eperlabarreta'ko mutil arro ta eretxia, bere ama onaren burubide on guztiak alde batera itxita, biaramon goizean Saibi'rantz abiau zan. Eta Sailluente'ra eldu zanean, artzuloaren aurreko landatxoan, "Lorrin" lamiñea, urrezko aulki eder baten jesarrita, ulea orrazten aurkitu eban. "Indartsuk", ikusi ebanekoxe, urrengo aupadea jaurti eutsan:

"Lorrin" lamiñatzarrak
Ez dau adorerik;
"Indartsu-ri eltzeko
Ez dauko indarrik.

Berbok entzutean, lamiñearen arpegia asarre bizitan jarri zan; eta eskuetan eukan orrazi gorria mutillari amorruz jaurtitez, abots itzelaz esan eutsan:

—Mutil arro ta zital ori! Indartsua ta adoretua azan ala ez, illuntzeko ipar-aizea izango dok ikusle!

Indartsu'k, orraziari polita eretxita, kolkoan sartu eban. Eta kolkoan sartzeaz batera paparra erre yakon. Ulu aundi bat egiñez, "Inpernuko bitxi mardarikatua" esanda, orrazi bakana erre-kara jaurti eban; eta berealaxe, erre-kako ur guztia irakiten asi zan.

Jazokun orreaz, mutillak ikara aundirik ez eban artu; eta "lamiñen gauzak" esanda, bideari aurrera jarraitu eutsan, Saibi mendiraño. An, egun guztian, Urkioleta'ko gazteakaz batera irabateari ekin eutsan. Eta illuntzean, Eskumendi'ko labar aundi baten jesarrita, abestuten asi zan.

Kantetan ziarduan artean, "Lorrin" lamiñea neska gazte baten itxura ederrez agertu yakon; eta abots ezitsuaz esan eutsan:

—Oi, "Indartsu"! Ederto zagoz, gero! Illuntzeko ozkiro gozarotan zure abesti politak atsegingarri yataz. Zure indar eta adore aundiaren izenak, zeu ezagutzera ekarri nau. Zuri irabaztekorik emen inguruetan be ez dagoala diardue esaten-eta...

Berbok entzutean, "Indartsuk", senetik urtenda lez, poz-pozik esan eutsan:

—Nor zara zu? Eguzkitik illargira ta illargitik eguzkira izan nazararren, zu lakorik ez dot ikusi...

—Goiko mendietako zelai ederretan dantzan eta olgetan bizi nazana naz ni —erantzun eutsan neskeak—. Mendi-gailur orren ostein dago nire bizitokia. Benetan ederra bera! Bertako aizeak, eguzki-egaletik, illargiaren erditik eta

izarraren artetik leunki-ro igaroaz, ametsik zoragarrienakaz atsegintzen gaitu; eta gure biotzak, mitxeletak lez, lorarik-lora egiñez, bizitza atsegin eutsa egiten yaku. An bai edertasuna! Bertako gauzak azaltzeko nire miiña ez litzake gai, urrezko idaztortza bear izango litzaketa...

Berba leunok esan ondoren, lamiñeak mutillari eskua luzatu ta beragaz joateko esan eutsan. Eta mutil lilluratu, lamiñeari eskua emonda, an joan zan sasi ta arantza guztien ganetik Sailluente'ko landatxoraiño.

Orduan, landatxo ezti biurtu zan; erre-kako ura, esne; arrizko zubi trauz-kill, barriz, lorazkoa biurtu zan. "Indartsu", lorazko zubia pozik igarotera joiala, "Lorrin" lamiña ankerrak, mutillari errime bultza egiñez, artzulo edo koba baltz bildurgarrira buruz aurrera jaurti eban.

Eta lamiña guztiak, orduan, an barruan mutillari makillakaz eta burduntziakaz zartada ederrak emonez, bizkar guztia birrindu eutsoen. Eta guztiak, ago batez, ari iñun diran iraiñak egiñez, esan eutsoen:

—Nun dozak indarrok eta adoreok? Goizean arro-arro jaurti doan aupadearen lorratzik be ez yoagu entzuten... Mutu egin az, ala? Orain, ire nagusiak geu gozak, artzuloaren barruan ondo lotuta ago-ta. Eta aurrerantzean, ire eguneroko janari onena, makillea ta atseka-bea baiño ez dok izango...

Ganeko egunetan, Sailluente'ko artzulo ingurutik igaroten ziran gazteak, Eperlabarreta'ko mutillaren ulu ta negarrakaz naastean, urrengo berbok entzuten ebezan:

—"Nitzaz lar uste nebalako ta nire ama onaren burubide onak aintzat ez artzearren galdu naz. Eztiak mingotsa, loreak arantzea, ta une labur bateko



atsegin zoroak atsekabe aundi ta luzeak leporatu daustez..."

Eta gazte askok, berba onekaz bildurrez dardar eginda, euren gurasoen esanak zintzo egiñaz, on-onak izateko asmoa artzen eben.

Buztintza'tar Errose'k eginda, ta Kerexeta'tar Jaime'ren ardurapean argitaratuta.

“Zure bekokiko izerdiaz irabaziko dozu zure ogia”. One-la esan autson paradisuari Jaungoikoak gure aita Adani. Orixe izan zan munduko bier-legerik aurren aurrenekoa. Izerdia atera bear genduala esaten jakun guztioi, baiña neke orren bidez, biziteko bear gendua lortuko genduala agintzen jakun.

Izerdia atera bai, baiña bear ainbateko ogirik ez ataratea da okerrera, esango deustazu, irakurle. Ba, onetaraxe natorren, zuzen-zuzen. Milloika jente dagoz munduan beren buruari eta beren familiari jaten emetoko lain irabazten ez dabenak. Gizon oneitako askok eta askok, “izerdirik” be ezin dau atera, au da, biziteko prexixokoena emongo leuskioen bierririk be ez dauke. Gizarte-problema zorrotza da benetan auxe: bierririk-eza. Eta zergaitik bierririk-eza ori? Askotan gure munduko estrukturak ankazgora dagozalako. Ankazgora bakarrik egongo balitzakezikera... tire!, baiña txarre-na da gizon askok txarto-egote ortatik negozioia ataratea. Baiña itxi dagigun estruktura alde batera —bestela ementxe gelditu bearko neuke, eta orain az dot gai onetzaz ezer geiago esan nai— eta goazen zeozter esatera bier-sariaren gain.


Biergin baten egun bateko bierraren prezioari esaten jako “lan-sari” edo jornala. Nagusiak eta biergiñak alkarrekin tratua egin eta bien artean erabakiten ebenari, lan-sari justua esaten eutsen liberalak. Baiña ori ez da beti egia. Etxeko guraso bat

danagatik baiño gitxiagotik ez leuke ezelan be bierririk egingo.

Biergiñari, indarrak barritzeko lain emon ezkerro, lan-sari justua emotea dala uste dabe askok; bierrian gaztatu dana barriztu, eta barriz bierrera joateko ondo badago, majo! Baiña, biergiña, ez da gero animali bat. Jaungoikoaren semea da; eta bere bekokiko izerdiz ogia irabazteaz gafiñera, ba-dauko esku-bede, eta obligaziñoa be bai, itxuraz familia mantentzeko. Origaitik diño Aita Santuek: “Famili-jornala” emon bear deutseela enpresak biergiñei. Famili batek itxuraz bizi al izateko bear dabenari esaten jako “famili-jornala”. Famili guztiak ez dira bardiñak ziur, euren premiñak be ez; askotan gorriegiak izaten dira premi orreek, eta famili-jornal absolutua emon da gero, beti ez da enpresa izango orreek erremediatu bear dituana. Ortarakoxe dagoz Estadua eta gizartea be.

Artikulu onetatik jaso auxe, irakurle: bier egiten dabenak, famili-jornala jasoteko eskubidea daukala. Baiña ez aztu beste au be: lan-sari ori pagaten dabenak be badaukala eskubide biergiñaren bierra jasoteko. Zuzentasunaren kontra egiten dau txarto pagaten dabenak. Baiña kobraten dauana baiño bier gitxiago egiten dabenak be, zuzentasunaren kontra egiten dau pekatu: dala biergin, edo maixu edo jostun.

Juztizi kontuan Jesukristok edo Eleizak emon dabezan



FAMILI-JORNALA DALA-TA

bierririk barik, eta bere semeak goseak badaukoz, eskeiñitako guztia onartuko dau olakoak bierra lortze arren. Bere buruaren jabe eta libre dala irudituarren, ori ez da libre, premiak larritu eta bearturik dago-ta. Orrela beartua ezpalego, bidezkoa

erakutsiak, ez doaz ez aberatzen, ez pobreen kontra. Bardin-bardin dira batzuentzako eta besteentzako. Guztiak dira Jaungoikoaren seme. Bakoitzak dauz bere eskubideak, eta guztiak errespetatu bear dabez alkar, eta anaiak lez alkar maite.

Pentzamentu oneek pape-rean ipintea gauza erreza dala uste dot. Auxe berau esango dustazula uste dot, irakurle. Baiña errealdade biurtu bear diranean izaten dira kontuak. Onantantxe nago ni. Errealdadea garratza da, baiña baliotsua.